

## EUSKARA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN

Pello Salaburu

---

### SARRERA

Lehenik eta behin, eta hasteko, neure esker onak adierazi nahi dizkiet biltzar honetan hitz egiteko parada eman didatenei. Eskerrik asko, bada, Eusko Ikaskuntzako arduradunei eta batez ere Joseba Agirreazkuenagari, beragandik hartu bainuen zuzenean hemen egoteko gomita.

Gaur egun, hori ezin da ukatu, euskararen presentzia errealtate pozgarria da Euskal Herriko Unibertsitatean. Urrats asko geratzen dira oraindik ere eman gabe, batzuk formalak (idatzi guztiak euskaraz ere egitea, ikasgai guztiak euskaraz emateko aukera, e.a.) eta beste batzuk eguneroko bizitzarekin zerikusi handiagoa dutenak, euskara jakiteak bakarrik ez baitu hizkuntzaren erabilera ziurtatzen. Zuloa dago oraindik ere, eta ez txikia, euskara jakitearen eta erabiltzearen artean. Gizartean berean gertatzen den gisa, gauza bat baita euskaraz jakitea eta bestea, desberdina, euskara erabiltzea komunikazio hizkuntza arrunt bezala. Horretan uste dut unibertsitateak islatu besterik ez duela egiten gizartean gertatzen dena, elebidun izan nahi duen, baina ez den, gizartearen egoera hain zuzen ere.

Euskal gizartean pixkanaka sartu da euskara. Geu izan gara lekuko nola galduak zituen esparruak berriz ere bereganatu dituen, nahiz ez beharbada guztiok nahi genukeen abiadurarekin. Prozesu honetan guztian, ezin daiteke ahaztu ezinbestekoa izan dela legediaren indarra, hiritarron eskubiak behar bezala bermatzeko eta ibilbide guztiari oinarri sendoak jartzeko. Euskal Herriko Unibertsitateen gertatu dena ere horrekin dago lotua, esan behar ez denez. Gauzak horrela, hiru aldi edo garai bereiziko nituzke nik, eta berehala esango dut zergatik, erakunde honetan hizkuntza kontuetan gertatu denaren berri emateko:

- 1) Hasiera, 1985ean estatutuak onartu ziren arte.
- 2) Estatutuak onartu ondoren 1990 arte.
- 3) Azkeneko urteak.

Hala ere, aldi hauen aurkezpena egin aurretik EHUri dagozkion zenbait daturen berri eman nahi nuke, unibertsitate

honen neurriez ongi kontura gaitzen. Jakina denez, EHUK dituen 26 ikastetxeak hiru campusetan daude banatuak: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Eta Bizkaian ere, bi campus bereizi beharko lirakeke, Bilbokoa eta Leioakoa. 1992-93 ikasturtean 52.604 ikasle matrikulatu dira, doktorego programakoak, diploma eta masterretakoak eta ikastetxe atxikietakoak kontuan izan gabe. Horiek denak kontatuz gero 60.000 ikasle baino gehiago dago. Denetara 1.957 ikasgai irakasten dira, hemen ere lizentziatura mailakoak bakarrik kontuan hartuz. Hauen irakaskuntza 2.984 irakasleren eskuetan dago, hauetarik 2.297 ardura osokoak direnak.

Zer gertatzen da euskararen kontuarekin zifra hauen guztien barnean? Euskaraz ari dira ikasten 5.114 ikasle (euskal ikasle gisa definitzen ditugu ikasturte beraren barnean ikasgaien erdiak baino gehiago euskaraz ikasteko aukeratzen dutenak), hots, %9,7 bakarrik, nahiz agian kopuru hau handixeago izan daitekeen beste neurketa batzuen arabera. Ikasgai dagokienez, 772 egin daitezke euskaraz (%39,45), kontuan hartu gabe zenbait ikasgai nahitaez euskara ez den beste hizkuntza batean egin behar direla (espainiera, ingeleza, e.a.). Irakasleen artean 485ek dihardu euskaraz erakusten, nahiz badiren erdaraz irakasten duten euskaldun irakasleak ere. Horrenbestez, irakasle guztien artean %16 ari da euskaraz irakasten. Batek galde dezake, euskal irakasleak gazteak eta kontratatu berriagoak izaki, euskaldun irakasleen prestakuntza erdarazkoen mailakoa den ala ez. Doktore gradua hartzen bada kontuan, 147 irakaslek doktore gradua du une honetan. Honek esan nahi du euskal irakasleen artean %39k doktore gradua eskuratua duela dagoeneko. Erdaraz erakusten dutenen artean proportzioa handiagoa da, %50 baita doktorea. Hala ere, hauen artean badira irakasle asko iharduera osokoak ez direnak eta ordu batzuk bakarrik lan egitera etortzen direnak. Euskaldunen artean hori ia-ia gertatzen ez denez, badirudi konparazioa iharduera osokoekin bakarrik egin beharko litzatekeela. Horrela, proportzioa handiagoa da, %59koa alegia. Euskaldun irakasleen eta erdaldunen arteko proportzioak erkatu nahi badira, badirudi azkeneko zifra hau hartu beharko litzatekeela kontuan. Horrenbestez,

euskaraz irakasten dutenen artean %39 baldin badira doktoreak, erdaraz irakasten dutenen artean %59koa da proportzioa.

Ikusten denez, hala eta guztiz ere, euskararen presentzia ez da batere anekdotikoa. Ia ikasketa gehienetan, letretakoetan nahiz zientzietakoetan, bada zerbaiteuskaraz ikasteko aukera. Batzuetan zerbaiteuskaraz badaiteke ere, beste kasu askotan ez da hori gertatzen, ikasturte osoak egin baitaitezke euskaraz, eranskinetan ikusten den moduan.

## HASIERA (1978-1985)

Orain dela 25 urte sortu zen Bilboko Unibertsitatea, herri hau hainbeste eta hainbeste urte unibertsitate publikoaren zain egon ondoren. Gero, hasierako kimu itxaropentsu hura Euskal Herriko Unibertsitate bihurtu zen izenez, eta Txillidaren zuhaitza hartu zuen sinbolotzat, nahiz Euskal Herrikoa izan beharrean de facto Euskadiko Komunitate Autonomoarena baizik ez den. Euskal Herriko Unibertsitatea 1980ko otsailaren 25ean sortu zen. Orduan, gauzak abiatzen ari ziren hartan, euskararen egoera borondatearen eskuetan zegoen batez ere: egia da Martin Mateo errektore jaunak euskara, ez euskaraz, ikasi nahi zutenei eskolak emateko monitore koordinatzaileak kontratatu zituela, baina ikasketak euskaraz jarri nahi baldin baziren, bidea ez zegoen errektorearen esku bakarrik. Ikastetxeek beharrezkotzat jotzen baldin bazuten ikasketak euskaraz ere ematea, orduan irakasle batzuk lan horretan hasten ziren, euskaraz erakusten alegia. Baina eginkizun hau beharrezkotzat hartzen zen ikasleen aldeko presiorik gertatzen zenean bakarrik edo irakasle batzuek beren borondatea hartarako lerratzen baldin bazuten. Ez bestela. Unibertsitateak kalean gertatzen zena biltzen zuen. Une hartan orain baino askoz ere jende gehiago, jende heldua esan nahi dut, ari zen bere ahaleginak burutzen euskara ikasi nahi zuelako, hiztegiak ere argitaratzen hasiak ziren, arruntak eta teknikoak, gure hizkuntza hain beharrezkoa zuen normaltze bidean jarri horrela. Bere eguneroko komunikazio esparruetatik bide berrietara igaroz, euskara nonahiko eta noranahiko bihurtu nahian.

Hala hasi ziren han-hemenka euskal eskolak. G. Monreal garai hartako errektoreak bideratu zituen 1981etik aurrera euskal ikasketak Irakaslego eskolatan (gizarteak hezkuntzan zituen beharrei aurre egiteko) eta zientzietan ere (instituetan zegoen eskaerei behar bezalako erantzuna emateko). Euskara Teknikoa emateko lehenbiziko saioak ere garai hartakoak ditugu. Aipatzekoak dira hemen Zientzien Fakultatean egin ziren ahaleginak, gero beste ikastetxeetara hedatu zirenak. Donostiako Kimika Fakultatean ere emanak hasiak ziren aspalditik, 1976-77 ikasturtean hain zuzen ere, ikasgai solte batzuk. Han, euskaltzale talde bati esker, ikasleek aukera izan zuten beren ikasketak euskaraz segitzeko, neurri batean bederen. Aldi berean, ikasketak euskaraz egiteko aukerarik ez zen tokietan euskara teknikoaren irakaskuntza bultzatu zen. Aipatu beharra da hemen UEUK izan duen eragina ere, horrela hasi baitziren trebatzen irakasle batzuk eta beren eskolak lehenbiziko aldiz euskaraz ematen. Baina, oro har harturik eta kontu honi buruzko historia egin gabe baldin bada ere, garai hartako ahaleginak ez ziren batere egituratuak izan instituzio mailan eta aldian aldiko fakultate eta zentruetako agintarien edo gobernu organoen borondatearen esku uzten zen euskara bultzatzea. Euskararen presentzia, ez da esan beharrik, mugatua zen, gehienetan lizentzia mailako ikasketa batzuetan bakarrik edo, hobeki esanda, ikasketa batzuetako ikasgai batzuetan bakarrik, erabil baitzitekeen. Doktorego tesiak ere askoz beranduago defenditu ziren euskaraz. Oker ez banaiz, nirea izan zen, gainera, euskara hutsez idatzi, aurkeztu eta

buruturiko lehenbizikoa, 1983an, Mitxelenak berak esan zidanez. Baziren, egia da, alde zuretik euskaraz aurkeztuak izan ziren beste batzuk, baina erdarazko bertsioaren parean ageri ziren, edo erdaratik euskaratuak, itzulpena, gainera, egileak ez beste norbaitek egin zena zenbait kasutan.

Horrenbestez, garai honen ezaugarriak haurak izango lirake: planifikazio eskasa, irakasle eta agintari batzuen borondate ona, ikasleen presioa, ea. Unibertsitatea bera ere nahiko pipiatua zegoen baretik bizi zuen egoeratik: sortu berria, etengabe hazten ari zena, dena zegoen egiteke, diru iturriak ere aski laburrak ziren, e.a. Kontuan izan behar da 1977 eta 1982 urteen artean 14 zentru diferente sortu zirela. Zernahi gisaz, orduan, unibertsitatean ere hain giro nahasia bizi zen garai hartan, jarri ziren bidea egiteko lehenbiziko harriak. Eta orduan prestatu ziren, jakina, EHUko estatutuak ere G. Monreal errektorearen eskutik. Estatutu hauek jartzen dira behin betiko euskaraz bere garapenerako ezinbestekoak dituen lege euskarriak.

## BIGARREN ALDIA (1985-1990)

Bigarren garaia, nire ustez, estatutuak onartu zirenean hasi zen, 1985ean. Egoera ez zen guztiz lasaitu unibertsitate barnean, baina euskaltzale guztiak bazuten lanabes zehatz bat, hainbat eskaera eta iritziren arteko oreka erakusten zuena, beren hizkuntzarekiko eskubideak segurtatzeko. Estatutuek unibertsitari ororen hizkuntza eskubideak babesten ditu: euskararen eta erdararen erabilera normala eta ofiziala bermatzen da (241. art.); unibertsitarietara edozein hizkuntza ofizial erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie, bai ikasteko bai irakasteko (243); ikerlanak, bestelako lanak, probak eta azterketak edozein hizkuntzatan egiteko eskubidea onartzen zaie; ematen den euskal irakaskuntza garatu beharra aitortzen da (244); unibertsitateko inprimaki eta paper guztiak bi hizkuntzatan egin beharra aipatzen da (247); Administrazio-Zerbitzuetako langileak euskalduntzeko neurriak hartu behar direla esaten da (248); langileak kontratatuzeko orduan euskara jakitea kontuan izango dela (248); behar diren itzulpen zerbitzuak bermatuko direla (249), e.a. Neurri hauek guztiak segurtatzen dituzte, dudarik ez, unibertsitari guztien hizkuntza eskubideak, arau kontuetan bederen.

Gainera, hizkuntza politika aurrera eramateko behar bezalako egiturak zehazten dira estatutuetan, nahiz batzuen eta besteen kompetentzia eta zereginak zertxobait nahasiak dauden. Horrela, ikastetxe guztietan Euskara batzordeak sortzen dira, batez ere aholku emaile mailakoak direnak, hizkuntzaren ardurak bere gain hartzeko. Campuseko ordezkariekin Unibertsitateko Euskara Batzordea sortzen da, arazo unibertsitate mailan aztertzeko. Batzordearen burua Euskararako errektoreordea da, aldi berean Unibertsitateko Gobernu Batzordeko berezko batzordekide dena. Gainera, Euskararako Kabinete Teknikoa (errektoreordetzako erabakiak betearazi behar dituen) eta Euskararako Instituta ere estatutuetan zehazten dira. Une honetan, Euskararako Instituta izan ezik, gainerako organoak indarrean daude, eta lanean, nahiz ez diren nahi genukeen bezain ongi hornituak.

Instituzioari dagokionez, urte hauek ez ziren errazak izan: ikaragarri hazten ari zen EHU, aurrekontuak askoz ere handiagoak ziren eta erakundea puztuz zihonan etengabe urterik urte. Euskaltzaleek indar handiagoa zuten eta euskal irakasleak kontratatuzeko presioak handiak ziren zenbait tokitan, besteak beste, ikasleak ere ugaltzen zirelako, ikastoletatik zetozen lehenbiziko belaunaldiak unibertsitatean uholdean sartzen hasi zirenean. Irakasleen kontratazioa beste modu batera egi-

ten zen: estatutuek ematen zuten indarrean oinarriturik, unibertsitateak gero eta irakasle euskaldun gehiago kontratatzen zituen, diru aldetik ere ez baitzegoen aparteko arazorik. Kontratazio hauen artean, hain zen handia orduko beharra, denetarik suertatzen zen eta zenbait kasutan euskaraz oso makal zebilen jendea kontratatu zuen EHUK, besterik ezean. Horrek ondorio txarrak zituen, eta ditu, euskaraz ikasi nahi zuten ikasleentzat eta unibertsitatearentzat berarentzat ere. Euskararen aitzakiarekin hainbeste irakasle sartu ziren unibertsitatean baina, aldi berean, erakunde honek ez zituen bere garaian behar bezalako kontrolak jarri eta euskaraz emateko kontratatu ziren irakasle anitz erdaraz erakusten jarri zituen bere sailak, horrela euskal irakaskuntzak atzerako pausua emanez. Hala ere, urte horietan euskarak aurrera egin zuen ikasketetan.

Euskal irakasleak kontratatzeke orduan gertatzen zen kontrol ezak bi aurpegi zituen: batetik, ez zitzaien unibertsitateko sailei behar bezalako jarraipenik egin euskal irakasle hauei dagokienez. Ez zen garbi geratzen sailak zer nolako konpromesua hartzen zuten euskal irakasle bat kontratatzen zuten aldi bakoitzean. Eskatu eta emango zaizu, zen garai hartako leloa, eta hori egin zuten euskaltzaleek eta baita ere bere saila, nola edo hala, euskara zela eta, puztu nahi zuten erdalitzaleek. Hauentzat aitzakia hutsa zen euskara. Bestetik, ez zen kontrolatu irakasle hauek nolako ardurak hartzen zituzten bere gain. Horrela, aski arrunta zen ikustea ikasketa batzuetan lehenbiziko ikasturtean bi ikasgai eskaini zitezkeela euskaraz, bigarren urtean beste bat, hirugarrenean bi oinarritzko eta bat aukerakoa, e.a. Ikasleak beti mugitu behar zuten euskararen eta erdararen artean, horrek ekartzen dituen kalte guztiekin hizkuntzaren normalizaziorako. Jakina; horren arrazoia, askotan, ezinbestekotasuna zen, ez baita horren erraza jakintza arlo guztietan euskal irakasleak kontratatzea —geroago itzuliko naiz puntu honetara—, baina egia da beste batzuetan irakaslearen edo sailaren erosokeriaren ondorioa dela hau guztia: nahiago izaten da laugarren ikasturtean irakatsi lehenbizikoan egin beharrean, edo alderantziz. Eta horrek halako desoreka nabarmena jartzen zuten euskaraz eskaintzen ziren ikasgaien artean.

Urte hauetan, Jaxinto Iturbe eta Andoni Iriondo errektoreordeak diren garaian, aipatzekoak dira, hala ere, unibertsitate mailan egin ziren bi ahalegin handi eta beharrezko:

1) AZPko langileentzat (langile ez irakasleak) euskara ikasteko eskolak antolatu ziren. Langile gehienek aukera aurkitzen zuten horrela euskara ikasten hasteko. Programa horren arabera, bi ordu hartzen zituzten hartarako langile batzuek, eta liberazio osoa besteek. Lehenbiziko aldiz zuten hemengo langileek aukera beren lana utzi, haien ordez beste norbait kontratatzen zuelako unibertsitateak, eta euskara ikasten hasteko. IVAPekin ere hitzarmen bat sinatu zen eskola hauen ardura haien gain utziz. Programa hau indarrean dago egun ere.

2) 1990eko irailean onartu zen euskara hedatzeko plangintza zehatz bat, Unibertsitateko Euskara batzordeak burutua. Plangintza hau Gobernu Batzarrak onartu zuen, konturatu gabe agian, beldur naiz, zer zen onartzen ari zena. Estatutuen aplikazio konkretu bat da hau, eta Euskararako errektoreordetzaren zeregina indartu egiten du, irakasleak kontratatzeke orduan. Nire ustez, plangintza hau indarrean jartzea aurrerapausu handia izan da, nahiz eta, onartu zen garai hartan, ez zen inolako dirulaguntzarik bereizi plangintzaren betebeharrak aurrera eramateko.

Plangintzak hainbat puntu zehazten ditu:

— Ikasketa guztien sailkatze bat egiten da, hizkuntza eredu desberdinak (A, B1, B2, C, D) proposatu ikasketa plan bakoitzeko, campus eta ikastetxe bakoitzean. Horrela, ikasketen artean gradazio bat egiten da, zeintzuk eman behar diren bere osotasunean euskaraz, zeintzuetan eman behar diren ikasgai batzuk bakarrik eta zeintzuk diren hauek, zein ikasketatan eman behar den hasteko lehenbiziko zikloa, e.a. Kontuan izanik ikasleek eskubidea dutela dena euskaraz egiteko eta hori bat-hatean egitea ezinezkoa dela, bost urteko plangintza bat egiten da. Dena dela, esan beharra da garai horretan bertan euskaraz aritzeko kontratatuak izanak ziren hainbat irakasle erdaraz irakastera pasatu zirela, sarritan irakasleen beren axolagabekeriagatik, lehenago aipatu bezala.

— Plangintza horretan zehazten da zenbat irakasle kontratatu behar diren urtero, bost urtetan zehar: denetara EHUK orduan begiz jotako beharrak betetzeko 295 irakasle berri kontratatu beharko litzuzke eta 146 irakasle birziklatu. Esan dugunez, ordea, ez da dirurik bereizten irakasle hauen kontratazioak burutu ahal izateko.

— AZPkoen kasuan euskara eskolak nola burutu zehazten da.

## HIRUGARREN ALDIA (1990- )

Euskarari dagokionez, Juan Jose Goiriena de Gandarias errektore aukeratua izan denetik gauzak aski aldatu direla esan behar dut. Aldatu onerako, jakina. Beldurrik gabe baieztatu daiteke pausu sendoak egin dituela euskararen garapenak unibertsitate barruan. Hona hemen, hurrenkeran eta laburlabur, zein izan diren euskararen presentzia indartzeko emandako urratsik nabarmenenak:

1) Hasteko, euskararen egoerari buruzko datu zehatzak eskuratu genituen sail eta ikastetxe guztietatik. Horrela jakin ahal izan genuen zein ziren benetan euskaraz ematen ziren ikasgaiak eta nork ematen zituen, aldi berean irakasle euskaldunen zerrenda bat eginez. Horrela ikusi ahal izan genuen, esaterako, erdara erabiltzen duten irakasle euskaldun bat baino gehiago badela sailetan.

2) Funtsezko datu horiek eskuratu ondoren, Euskara Batzordearekin plangintza zehatz bat egin zen zein ziren hutsune nabarmenenak agerian utziz: zeri eman lehentasuna, eta zergatik, zehaztu ahal izan zen. Ondoren errektoreordetzatik proposamena luzatu zitzaie sail guztiei irakasleak kontratatzeke eskaerak egin zitzen.

3) Honekin batera diru iturriak finkatzen hasi ginen. Lehenbiziko aldiz lortu genuen diru kopuru berezi bat sartzea Komunitate osoko aurrekontuetan, euskara bermatzeko erabiliko zena eta, zehatzago hitz eginez, euskal irakasleak kontratatzeke. Prozesu honetan parte berezia izan zuten Ardantza lehendakariak berak, berehala ulertu zuelako arazoaren mamia non zen eta bere laguntza eskaini baitzigen sozialisten eskuetan zegoen hezkuntzako sailaren aurrean. PNVk berak ere paper garrantzizkoa izan zuen eta berdin-berdin esan behar dugu EA eta EUE alderdiez. Halako diru kopurua aurrekontuetan agertzea aurrerapausu handia izan da.

4) Horrela, joan den ikasturtean EHUK 109 irakasle berri kontratatu ahal izan zituen, berebiziko bultzada emanez euskararen, urte batean bakarrik %25ean hazi baitzen euskal irakaslegoa. Kontuan hartu behar da, gainera, ia-ia ez zela bestelako kontraturik egin iaz. Denetara, EHUn dauden gutxi gora-beherako 2.900 irakasleetatik 485 euskaldunak ditugu orain. Prozesu hau oso luzea izan da eta agerian utzi du euskarak bizi duen egoeraren ezaugarri nagusienetako bat: oso

neketan aurkitzen da jendea zenbait gairen ardua hartzeko. Edo ez da aurkitzen jakintza arlo horretan prestaturik dagoen jendea, edo aurkitzen baldin bada, oso euskara kaxkarra erabiltzen du. Lanpostu bat baino gehiago, eta denak betetzeko garantiekin argitaratu ziren, hutsik geratu izan da eta, ondorioz, behin eta berriz errepikatu behar izan dira deiak. Oraindik ere badira 11 kontratu sinatu barik.

5) Honen ondorioz, gaur egun 485 euskal irakasle dago, eta hauen artean 147 doktore graduakoak dira. Doktoreen kopuru hau hazten ari da etengabe. Ikasgaien artean, derrigorrezkoak bakarrik hartzen dira kontuan, aukeran direnak urterik urte aldatzen direlako eta batzuetan erdaraz ere eskaintzen ez direlako, %40± egin daiteke euskaraz. Portzentaia hau handitu egingo da hurrengo urteetan. Hala ere, ikasleen artean, oraingoz %10ek bakarrik egiten ditu ikasketak euskaraz, nahiz garbi ikusten den hasierako ikasturteetan gero eta jende gehiagok eskatzen duen euskara. Ikasketa batzuetan, irizpide honen arabera ia dena egin daiteke euskaraz (OHO, Gizarte graduatuak, Psikologia, e.a.) eta beste batzuetan ia ezer ere ez (Farmazia, Arkitektura, Topografia, Odontologja, e.a.). Baina gehienetan gauza asko ikas daitezke hizkuntza honetan (ikus eranskinak). Gure asmoa izan da beheko ikasketak ikasturteka eta zikloka segurtatzea, eta derrigorrezko ikasgaien lehentasuna ematea aukeran dauden ikasgaien gainetik. Horrela eskaintza homogeen bat egiten zaio ikasleari eta honek badaki alde aurretik ikasturte edo ziklo bat bere osotasunean egin dezakeela euskaraz.

6) Administrazio eta Zerbitzuetako langileen artean euskara ikasteko ikastaroekin segitu dugu: 200 bat langile joaten da 2 orduko eskoletara eta 80 langile libratzen dira lanetik lau hilabete txandetan. Orain dela hilabete batzuk zehatu ahal izan dugu gainera, lehenbiziko aldiz, bi urtetan zehar etengabeko lana egin ondoren, langileen postuen katalogo bat, ezinbesteko lanabesa duguna edozein planifikazio egiteko orduan. Hor agertzen da lanpostu bakoitzak duen eskakizuna hizkuntzari dagokionez, lehenbiziko lau urteetan bete behar dena. Puntu honetan ere dugun informazioa oso gaurkotua dela esan daiteke, langile bakoitzak bere fitxa duelako euskara ikasteko hartu dituen orduak eta egin duen aprobetxamenduz.

7) Gipuzkoako Diputazioarekin egindako hitzarmen bati esker, eta errektoreordetzak berak jarritako baliabideengatik, testu liburuak argitaratzeari ekin diogu. Horrela, kalean dira dagoeneko hamar liburu eta beste horrenbeste daude bidean, jakintza arlo askotakoak. Ahalegin handia da hori unibertsitatearentzat eta liburuak ongi aukeratzea eskatzen du plangintza honek. Badira, liburu horien artean, esate baterako, 7 milioi pezetako kostua dutenak (itzulpenaz bakarrik ari gara, argitalpena kontuan izan gabe).

8) Seigarren maila eman eta euskara ikasi nahi duten plaza-dun irakasleak ere liberatu ditugu euskaraz ikasteko. Ez dira gehiegi izan eskatu dutenak, baina bada talde bat Gipuzkoan eta beste bat Bizkaian.

9) Lan Sailarekin batera, eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaren eskutik, irakasleak formatzeko programa berezi

bat antolatu da aurten eta, hartara, 23 lagun hasi dira beren proiektuak burutzen EHUko sailetan. Luzera begira, zaila den jakintza arloetan irakasle gaiak sortzea da programa honen xedea eta irakasle horiek formatzeko modu egokia izan daitezke eskolaz zuzenean ematen hasi beharrean hilabete batzuetan sailetan trebatze lanetan jardutea.

10) Azkenez, Euskararako Errektoreordetzak "Campusa" izeneko berripapera sortu du, euskal adarretan dagoen jendearentzat informazio iturri izan nahi duena.

Laburtuz, orduan, esan daiteke euskara indartu egin dela azkeneko urteotan, nahiz gure aurrean dugun erronka oso handia den oraingoz, hori ezin baita ukatu.

## ETORKIZUNERA BEGIRA ZER

Ez nuke hitzaldi hau amaitu nahi etorkizunari buruzko oharrik egin gabe. Nire ustez, geroak erakutsian uzten dizkigun arazo nagusiak bi dira:

1) Une honetan bizi dugun krisi ekonomikoak. Bistan da honek jendea kontratatzeko orduan eragin handia izanen duela hurrengo hilabeteetan. Gizartearen egoera estua zein den ikusirik, ez dirudi arrazoizkoa denik orain arteko politikarekin segitzea: geldialdi bat egitea komeniko litzateke egoera bera pixka bat argitzen den bitartean. Horrek ez du eragozten, dena dela, beste zenbait gauza egiteko: irakasleen birziklapenarekin segitu beharko genuke, euskal irakasleen euskara maila hobetzeko ikastaro bereziak egin behar ditugu (hemendik hilabete batzuetara egingo da lehenbizikoa Gipuzkoa), ikasleen euskararen mailaren berri beharko genuke (iaz egin genuen honi buruzko ikerketa bat), e.a. Horiek guztiak egingo ditugu hurrengo hilabeteetan.

2) Bigarren erronka ez dut utzi nahi behar den bezala aipatu gabe: aitortu behar dut ez garela gai izan Euskararen Instituta indarrean jartzeko, nahiz eta hainbat aldiz aztertu dugun arazoa eta berehala abian jartzeko asmoak ditugula gaztigatu dugun. Hau da guk egin dugun hutsik nabarmenena eta, hartaz, hurrengo hilabeteetako eginkizun nagusia, dudarik ez. Euskararako Institutuak bideratu behar du testuen argitalpena, ikastaro bereziak antolatu behar ditu eta, oro bar, euskaraz irakasten ari diren irakasleei laguntza berezia eman behar die, maila guztietan.

Bestela, beste kontuetan, orain arteko politikarekin segitzeko asmoa dugu. Luzera begira, EHUra datorkeen ikasle-go dugu aztergai, hemendik urte batzuetara ikasleen kopurua beheratu egingo delako (1986tik aurrera hasiko gara igertzen) eta datozkeen ikasleen artean gero eta euskaldun gehiago egongo delako. Honetaz pentsatzen hasi behar du unibertsitateak bere baliabideak jartzeko. Zoritxarrez, une honetan besteren esku gaude. Gizarteak berak erabaki behar du nolako unibertsitatea nahi duen, zer nolako garrantzia eman behar dion euskarari, e.a. Hori, bistan denez, ez dago unibertsitateko agintarien esku bakarrik.

## ERANSKINAK

## EHUKO IRAKASLE ELEBIDUNAK 93-94

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EHU
U.E.ko irakasle laguna	5	19	25	49
Unibertsitateko irakasle laguna - Liz.	23	111	59	189
Unibertsitateko irakasle laguna - Doktorea	4	29	28	65
U.E.ko irakasle titularrak	12	40	48	100
Unibertsitateko irakasle titularrak	11	24	33	68
U.E.ko irakasle katedradunak	1	—	4	5
Unibertsitateko irakasle katedradunak	4	1	4	9
<b>EHU</b>	<b>60</b>	<b>224</b>	<b>201</b>	<b>485</b>

## 1992/1993 Ikasturtean Kontraturiko irakasleak

Farmazia Fak.	5
F <sup>a</sup> , G <sup>a</sup> eta H <sup>a</sup> Fak.	1
Ind. eta Top. ing. Tek. U.E.	4
<b>ARABA</b>	<b>10</b>
Zientzi Fak.	17
Arte Ederren Fak.	7
Ekonomi eta Enpresa Z. Fak.	4
Gizarte eta Inf. Z. Fak.	15
Medikuntza eta Od. Fak.	4
Industri eta Telek. Ing. G.E.T	2
Enpresa Ik. U.E.	4
Erizantzarako U.E.	1
Gizarte Graduatuen U.E.	2
Ind. Ing. Tek. U.E.	1
<b>BIZKAIA</b>	<b>57</b>
Kimika Z. Fak.	6
Zuzenbide Fak.	6
Informatika Fak	4
Filosofia eta H.Z. Fak.	1
Psikologi Fak.	2
Enpresa Ik. U.E.	5
Ind. Ing. Tek. U.E.	7
<b>GIPUZKOA</b>	<b>31</b>
<b>OROTARA</b>	<b>98</b>
(beste 11 kontratatze bidean daude)	

## EHUko irakasleak akademi graduaren arabera

EHUko ardura osoko dokt:	1205	
EHUko zatikako ardurako dokt.:	253	
GUZTIRA	1458	
EHUko ardura osoko irak.:	2297	
EHUko zatikako ardurako irak.:	637	
GUZTIRA	2934	
<b>Irakasle elebidunak (euskaraz irakasten dute)</b>		
	Eusk.	Erd.
Ardura osoko dok:	147	1058
Zatikako ardurako irak.:	—	253
GUZTIRA	147	1311
Ardura osoko irak.:	458	1839
Zatikako ardurako irak.:	27	610
GUZTIRA	485	2449
<b>Portzentaiak:</b>		
Doktoreak - osoa / Irak. osoa		% 52.46
Doktoreak guztira / Irak. guztira		% 49.70
Doktoreak - osoa / Irak. guztira		% 41.07
Doktoreak - osoa - eral. / Irak. - osoa - erd.		% 57.53
Doktoreak - osoa - eral. / Irak. guztira - erd.		% 43.20
Doktoreak - eusk. / Irak. eusk. - osoa		% 32.10
Doktoreak - eusk. / Irak. eusk. guztira		% 30.31

## EUSKARAZ IKASTEN DUTEN IKASLEAK

	Guztira	Euskaraz	%
<b>ARABAKO CAMPUSA</b>	<b>4.357</b>	<b>596</b>	<b>13.68</b>
<b>1. Farmazi Fakultatea:</b>	<b>813</b>	<b>13</b>	<b>1.60</b>
• Farmazia	404	—	
• Elikagaien Z. eta Teknologia	229	—	
• Dietetika	180	13	
<b>2. Filologia, Geografia eta Histori Fakultatea</b>	<b>1.917</b>	<b>507</b>	<b>26.45</b>
• Geografia eta Historia	582	65	
• Filologia	1.335	442	
<b>3. O.H.O.erako Irakaslegoaren U.E.</b>	<b>214</b>	<b>21</b>	<b>9.81</b>
<b>4. Industri eta Topografi Ing. Tek. U.E.</b>	<b>1.413</b>	<b>55</b>	<b>3.89</b>
• Industri Ing. Tek.	1.191	55	
• Topografi Ing. Tek.	222	0	
<b>GIPUZKOAKO CAMPUSA</b>	<b>14.080</b>	<b>1.792</b>	<b>12.73</b>
<b>5. Kimika Z. Fakultatea</b>	<b>760</b>	<b>235</b>	<b>30.9</b>
<b>6. Zuzenbide Fakultatea</b>	<b>4.524</b>	<b>508</b>	<b>11.23</b>
<b>7. Informatika Fakultatea</b>	<b>1.196</b>	<b>150</b>	<b>12.54</b>
<b>8. Filosofia eta Hezkuntza Z. Fakultatea</b>	<b>791</b>	<b>137</b>	<b>17.32</b>
• Filosofia	215	40	
• Pedagogia	576	97	
<b>9. Psikologi Fakultatea</b>	<b>1.366</b>	<b>200</b>	<b>14.64</b>
<b>10. Arkitekturarako G.E.T.</b>	<b>843</b>	<b>0</b>	<b>0.00</b>
<b>11. Enpresa Ikasketen U.E.</b>	<b>1.870</b>	<b>300</b>	<b>16.04</b>
<b>12. Erizantzarako U.E.</b>	<b>376</b>	<b>0</b>	<b>0.00</b>
<b>13. O.H.O.erako Irakaslegoaren U.E.</b>	<b>499</b>	<b>262</b>	<b>52.50</b>
<b>14. Industri Ing. Tek. U.E.</b>	<b>1.855</b>	<b>215</b>	<b>11.59</b>
<b>BIZKAIKO CAMPUSA</b>	<b>34.167</b>	<b>2.766</b>	<b>8.10</b>
<b>15. Zientzi Fakultatea</b>	<b>4,399</b>	<b>528</b>	<b>12.00</b>
• Biologia	1.460	200	
• Fisika	937	126	
• Geologia	349	60	
• Matematika	479	34	
• Kimika	1.174	108	
<b>16. Arte Ederren Fakultatea</b>	<b>1.541</b>	<b>200</b>	<b>12.98</b>
<b>17. Ekonomia eta Enpresa Z. Fakultatea</b>	<b>6.995</b>	<b>426</b>	<b>6.09</b>
• Ekonomia	2.097	186	
• Enpresa	4.898	240	
<b>18. Gizarte eta Informazio Z. Fakultatea</b>	<b>5.279</b>	<b>825</b>	<b>15.63</b>
• Informazio Zientziak	4.030	628	
• Politika Zientziak eta Soziologia	1.249	197	
<b>19.- Medikuntza eta Odontologi Fakultatea</b>	<b>2.194</b>	<b>64</b>	<b>2.92</b>
• Medikuntza	1.849	64	
• Odontologia	345	0	
<b>20.- Industri eta Telekomunikazio Ing. G.E.T.</b>	<b>3.595</b>	<b>82</b>	<b>2.28</b>
• Industri Ing.	2.902	82	
• Telekomunikazio Ing.	693	0	
<b>21.- Enpresa Ikasketen U.E.</b>	<b>2.987</b>	<b>116</b>	<b>3.88</b>
<b>22.- Erizantzarako U.E.</b>	<b>738</b>	<b>0</b>	<b>0.00</b>
<b>23.- O.H.O.erako Irakaslegoaren U.E.</b>	<b>783</b>	<b>248</b>	<b>31.67</b>
<b>24.- Gizarte Graduatuen U.E.</b>	<b>2.965</b>	<b>194</b>	<b>6.54</b>
<b>25.- Industri Ing. Tek. U.E.</b>	<b>1.992</b>	<b>83</b>	<b>4.17</b>
<b>26.- Meatz Ing. Tek. U.E.</b>	<b>699</b>	<b>0</b>	<b>0.00</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>52.604</b>	<b>5154</b>	<b>9.80</b>

## EUSKARAZ IKASTEN DUTEN IKASLEAK

	Guztira	Euskaraz	%
<b>ARABAKO CAMPUSA</b>	<b>4.357</b>	<b>596</b>	<b>13.68</b>
1. Farmazi Fakultatea:			
Ž Farmazia (D)	31	1	3.22
Ž Dietetika (D)	25	5	20.00
2. Filologia, Geografia eta Histori Fakultatea			
Ž Geografia eta Historia (B1)	22	21	95.45
Ž Filologia (A Euskal Filologian, C besteetan)	108	44	40.74
3. O.H.O.erako Irakaslegoaren U.E. (A Euskal Fil., B2)	94	35	37.23
4. Industri eta Topografi Ing. Tek. U.E.			
Ž Industri Ing. Tek. (B2)	81	5	6.17
Ž Topografi Ing. Tek. (D)	19	0	0.00
<b>GIPUZKOAKO CAMPUSA</b>			
5. Kimika Z. Fakultatea (A)	28	16	57.14
6. Zuzenbide Fakultatea (B1)	25	20	80.00
7. Informatika Fakultatea (B1)	24	16	66.67
8. Filosofia eta Hezkuntza Z. Fakultatea			
Ž Filosofia (A Pents.-Sist. Historian, B2 besteetan)	26	25	96.15
Ž Pedagogia (A Mintz. Ped., B1 besteetan)	39	28	71.79
9. Psikologi Fakultatea (A)	22	22	100.00
10. Arkitekturarako G.E.T. (D)	40	0	0.00
11. Enpresa Ikasketen U.E. (B2)	30	16	53.33
12. Erizantzarako U.E. (D)	17	0	0.00
13. O.H.O.erako Irakaslegoaren U.E. (A)	112	90	80.36
14. Industri Ing. Tek. U.E. (A mek. Makin., B2 besteetan)	120	41	34.17
<b>BIZKAIKO CAMPUSA</b>			
15. Zientzi Fakultatea			
Ž Biologia (A ekosist. Biologian, B1 besteetan)	25	21	84.00
Ž Fisika (C)	34	7	20.59
Ž Geologia (C)	40	11	27.50
Ž Matematika (C)	31	4	12.90
Ž Kimika (C)	44	10	22.73
16. Arte Ederren Fakultatea (A ikus. Entz., B1 besteetan)	62	47	75.81
17. Ekonomia eta Enpresa Z. Fakultatea			
Ž Ekonomia (B1)	72	26	36.11
Ž Enpresa (B1)	71	34	47.89
18. Gizarte eta Informazio Z. Fakultatea			
Ž Informazio Zientziak (A)	41	36	87.80
Ž Politika Zientziak eta Soziologia (C)	53	19	35.85
19. Medikuntza eta Odontologi Fakultatea			
Ž Medikuntza (C)	29	9	31.03
Ž Odontologia (D)	32	0	0.00
20. Industri eta Telekomunikazio Ing. G.E.T.			
Ž Industri Ing. (B1 Mekanikan, C besteetan)	139	20	14.39
Ž Telekomunikazio Ing. (C)	62	0	0.00
21. Enpresa Ikasketen U.E. (B2)	37	10	27.03
22. Erizantzarako U.E. (D)	16	1	6.25
23. O.H.O.erako Irakaslegoaren U.E. (A)	103	103	100.00
24. Gizarte Graduatuen U.E. (A)	18	18	100.00
25. Industri Ing. Tek. U.E. (B2)	118	11	9.32
26. Meatz Ing. Tek. U.E. (D)	67	0	0.00
<b>GUZTIRA</b>	<b>1957</b>	<b>772</b>	<b>39.45</b>